



Magalean

Iratxe Hdez. Simal

© Argitaratzaila>Edita: Debako Udala
© Sarrerako testuak /Textos introducción: Iratxe Hdez. Simal
© Argazkiak/Fotografías: Kaioa a.s.p.
Diseinua/Diseño: Kaioa a.s.p.
L.G./D.L.: VI 510-2019

Magalean



Iratxe Hdez. Simal

Debako Santa Maria elizako klaustroa
Claustro de la iglesia de Santa María de Deba

2019ko uztaila - abuztua
julio - agosto de 2019



DEBAKO UDALA

Hasi da uda, hain preziatura dugun urtaroa, eta honekin batera ohikoak diren kultur jarduerak heldu dira. Animadebak ireki dio sasoi berriari atea, maila handiarekin gainera, udazkeneko iluntasunetik udako argitasunera eta herritik nazioartera salto eginaz. Musika, dantza, jai eta bestelako ekimenak izango ditugu hurrengo hilabeteetan. Horietaz gozatzea dagokigu orain.

Katalogo hau ildo beretik lotzen zaie aipatutako ekimenei, artearen sorkuntzatik hain zuzen. Uztailaren 6an estreinatuko da klaustroko XV. erakusketa. Erakusketaren kokalekua, eta horrekiko lotura da estilo, forma, teknika eta sorkunta ezberdinak batzen dituen ezaugarri nagusia. Espazio berezia baita gure elizako klaustroa.

Aurten protagonista izango dugun artistak ere espazioa bera hartzen du erakusketaren funts gisa, hala ere, etengabeko mugimenduan eta elkarrekintzan dauden espazioa eta ekintzaren arteko harremana du erakusketak ardatz. Klaustroak bere artelana garatzeko inspirazioa ekarriko ziolakoan gaude.

Iratxe Hdez. Simal bilbotarra da sortzez, baina Deba umetatik ezagutzeaz gain herriarekin lotura estua duen pertsona da. Egun Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea da, Arte Ederretako fakultateko Eskultura sailean, hala ere diciplina ezberdinen arteko lotura eta harremana azpimarratzearen aldekoa da. Horixe da egin nahi digun ekarpena: espazioa ardatz, diciplinak uztartuz ekintza eta mugimendua adieraztea.

Inguratzen gaituenarekiko harreman estuan bizi garela da erakusketa honek helarazten digun mezu garrantzitsuetako bat: paisaia eta lurrarekin harremanean batetik; komunitatea osatzen dugunokin bestetik. Eta, beraz, errespetua zor diegula horiei guztiei, bai inguruneari, bai egungo bizilagun eta noizbaiteko arbasoei ere.

Sortzailearen baimenarekin, erakusketa honen parte izatera gonbidatzen zaituztet, gustuko izango duzuelakoan eta kulturaz zein udaz gehiago gozaraziko dizuelakoan. Iza ere, kultura da dugun tresnarik iraultzaileena, gure iraganarekin lotu eta etorkizuna irudikatzen laguntzen diguna.

Gilen Garcia

Alkatea

Deban, 2019ko uztailean

Ha llegado el verano, esa estación tan preciada, y junto con ésta, han llegado las actividades culturales estivales. Ha sido Animadeba la encargada de ser la primera, habiendo realizado una transición del otoño a la lucidez del verano y haciendo un salto de lo local al nivel internacional. Durante los próximos meses tendremos música, bailes, fiestas y actividades de todo tipo. Ahora nos toca disfrutar de todas ellas.

Este catálogo está vinculado a dichas actividades, en este caso, desde la perspectiva de la creación artística. La XV exposición del claustro se estrenará el 6 de julio. Es la localización de la exposición y la relación con la misma la característica principal que une estilos, formas, técnicas y creaciones diversas. El claustro de nuestra iglesia es un espacio particular.

La artista que tendremos como protagonista en la presente edición toma el espacio como fundamento, aún así, la exposición tiene como eje la relación entre el espacio y la acción, la cual está en constante movimiento e interacción. Confiamos en que el claustro le haya aportado la inspiración necesaria para desarrollar su obra.

Iratxe Hdez. Simal es bilbaína de nacimiento, pero además de conocer Deba desde su infancia, es una persona vinculada al pueblo. En la actualidad es profesora en la facultad de Bellas Artes de la Universidad del País Vasco, en el departamento de Escultura, partidaria de subrayar la interrelación y el vínculo entre las diferentes disciplinas. Esa misma es la aportación que nos quiere hacer la artista: expresar la acción y el movimiento a través de la confluencia de las diferentes disciplinas, situando el espacio como eje central.

Es la relación con nuestro entorno uno de los mensajes que nos quiere trasladar la exposición. Por un lado, la relación con nuestro entorno natural y paisajístico y, por otro, la relación con los que componen nuestra comunidad. De este modo, llegamos a la siguiente reflexión: debemos respetar nuestro entorno, tanto el medio ambiente como las personas que lo componen, desde nuestros ancestros hasta hoy en día.

Con el permiso de la creadora, os invito a ser parte de la exposición. Espero que os agrade y que os haga disfrutar un poquito más de la cultura y del verano. De hecho, no tenemos herramienta más revolucionaria que la cultura, la cual nos une a nuestro pasado y a su vez nos ayuda a imaginar el futuro.

Gilen Garcia

Alcalde

Deba, julio 2019

Debako Santa Maria elizaren kalostran sartzean giro majiko batean barneratzen naizela iruditu izan zait beti. Presaren menpe bizi garen garai zoro hauetan norberaren baitan biltzeko aukera eskaintzen duen leku urri horietako bat dugu. Bertan denbora moteldu egiten dela esan genezake.

Espazioan eta ekintzan oinarritzen den praktika artistikoa da nirea, performatibitaterako joera duena. Horregatik, erakusketa ideatzerakoan, kalostraren antolakuntza espazialetik abiatu naiz berezkoa duen giroa goratzeko asmoz. Leku kuttun honek zentzumenak fintzeko beta hartzera gonbidatzen zaitu; horregatik, hain zuzen, nire artelanak zurrumurruaren tankera baino ez izatea eskatzen zidan.

Erakusketa honek **zentroan** aurkitzen du ardatza, artelan nagusia kokatuta dagoen gunean: bertan, gure kostaldeko berrogeitamar bat uhinari kokatu dira zirkunferentzia bat osatzu. Baratzazar jatorrizko eremutik aldi baterako hartuta -Geograpena, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Costas-ekoen baimen eta balezko txostenak eskuratu ostean-, instalazio iragankor hau zabaltzea eta aste batzuetan Deban ipintzea lortu dugu, berriz bertara itzuli aurretik.

Ez al da gorputza aurkikuntza, sorkuntza eta jakintzarako dugun lehenengo tresna? Debarekin lotura sakona daukan pertsona talde batek 25-30 kiloko uhinariak fisikoki garraiatzea bera, ahalegin handiko ekintza artistiko bat da, lotura bikotza adierazten duena: batetik, gaur egun naturarekin daukagun harte emana berdefinitzeko premia bistaratzen du, soilik funtzioei begirako planteamendu deserrotuak albo batera lagaz eta, begirunetik eta elkarrekiko pertenentziatik, lotura afektiboak estutuz. Bestetik, gure arbasoekin konektatzen gaitu, haiiek ere, harriak espazioan kokatuz, hainbat monumentu laga baitzuten. Dena dela, uhinarrietan ez da iraunkortasunaren arrastorik. Euren formei begiratuta, gehiago imajinatzen ditugu bidaia batean, olatuen eraginez eta haien eskultore ahalmenaren ondorioz, joan eta etorrian dabilzala. Beraz, instalazioa ez dago betikotasunari begira, presentziari so baizik; baina egiteko modu kolektibo eta kolaboratiboak eguneratu eta eraikitza ahalbidetu nahi du: hau da, auzolana bultzatu, gure ondare inmaterialaren parte konsideratu dezakegun eta soilik praktikan jartzen den neurrian existitzen den horri tokia egin.

Erdigune honen inguruan **arkupedun galeria batek** inguratzen du patioa. Pasabide honen barruko hormetan marrazkiak ikusiko ditugu, irudien ikerkuntza prozesu baten emaitza direnak: marrazkiok, hain zuzen, harriei forma ematen dien itsasoaren mugimendu etengabe eta nahigabekoa gogorarazten dute. Keinu minimo baina etenbakotik eta baliabide xumeenetatik abiatuta –papera eta boligrafoa– ekintza errepijakor hura harrapatzen saiatu naiz. Horrela, hilabeteetan aurrera egiten nuela, galdera anitzak sortu dira tramari buruz, zirrikutiei buruz, mugei, elkarguneei, esentziei, hondakinei buruz, eskala paisajistikoa eta objektualaren arteko konparaketari, marruskadura mailei eta haien arteko elkar-ekintzei buruz, zori eta kontrolaren arteko proportzioari buruz, etab. Beste behin ere prozesuari eman diot garrantzia emaitzari baino gehiago, lan amaitu bat baino, hilabeteetan zehar garatutako ikasketa baten moduan aurkezten baita, galderak egin, probatu eta probatzen segituz egindakoa. Marrazki hauek balizko ikuslea gerturatzea eskatzen dute. Hurbilasunetik soilik erdietsi daiteke beharrezkoa den intimitatea, marrazkien hauskortasuna eta norberarena ikusteko, trazuetako bakoitza ikusteko, ekintza gidatu duen inperfekzioz jositako bidea ikusteko. Gerturatu eta marrazkietan burua galtzen utziz gero, behar bada, bidaiatu egingo duzu zuk ere.

Marrazkietatik pasiatze erne horretan kalostraren lau **ertzetako** batera helduko gara. Eraikuntza arkitektonikoak berak agerian uzten du gune zehatz hauen bereizte gogo bat– sakontasun eta altuera handiagoko aldareak sartuz bertan-. Hemen bai luzatu dezakezula zure begirada, ertz bakoitzeko formatu handiko irudien artean elkarteka bisualak eginez. Hutsarte horietan, hain zuzen ere, azaltzen dira emakumezko eskuak, zeinetan denboraren joana irakur dezakegun, bereziki, harriarekin kontrastean. Ez dago esku neutrorik, beti hitz egiten digute. Haien zurrumurrua entzutera gonbidatzen zaitut.

Iratxe Hdez. Simal

Al entrar en el claustro de Santa María de Deba siempre he tenido la sensación de sumergirme en un ambiente mágico. Es uno de esos escasos lugares que brinda la posibilidad de recogimiento en esta época frenética nuestra, regida por la prisa. Parecería que en su interior el tiempo discurre más pausado.

Mi práctica artística se basa en el espacio y la acción, orientándose hacia la performatividad. De ahí que el conjunto de la exposición haya sido concebido partiendo de la organización espacial del propio claustro y con la aspiración de poner en valor intensificar la atmósfera que le es propia. Este lugar que invita a tomarte tu tiempo para afinar los sentidos, me pedía, a lo sumo, una suerte de susurro.


En consecuencia, la exposición se articula en torno al **centro**, donde descansa la pieza principal, una cincuentena de cantos rodados de nuestra costa dispuesta en circunferencia. Extraídos temporalmente de su enclave en Baratzazar -tras tramitar los permisos e informes favorables de Geogarapen, la Diputación Foral de Gipuzkoa y Costas- hemos conseguido desplegar una instalación de carácter efímero que el pueblo de Deba acogerá en su regazo durante algunas semanas antes de restituirla a su lugar de origen en nuestra singular costa.


¿No constituye el cuerpo la herramienta primigenia de descubrimiento, creación y conocimiento? La propia acción de trasladar físicamente piedras de en torno a 25-30 kilos, realizada por un equipo de personas fuertemente unidas a Deba, supone un acto artístico de gran esfuerzo que proyecta un doble vínculo. Por una parte, visibiliza la necesidad imperiosa de redefinir la relación que mantenemos con la naturaleza en la contemporaneidad, abandonando planteamientos meramente funcionalistas y desarraigados para promover un estrechamiento de lazos afectivos desde el respeto y la pertenencia mutua. Por otra parte, nos conecta con nuestros ancestros, quienes dejaron espacios acotados disponiendo piedras con un sentido monumental. No obstante, estos cantos carecen de la impronta de la permanencia. Su forma nos remite más bien al viaje, a un ir y venir constante ejercido por el oleaje, al tiempo como escultor incansable. La instalación no se proyecta por lo tanto hacia la eternidad sino hacia la presencia, permitiendo, no obstante, erigir y actualizar formas de hacer colectivas y colaborativas, como el auzolana, que podríamos considerar parte de nuestro patrimonio inmaterial y que sólo existe en la medida en que lo ponemos en práctica.

En torno a este centro una **galería porticada** rodea el patio. Los muros interiores de este espacio de tránsito albergan una serie de dibujos resultado de un proceso de investigación gráfica que evoca precisamente el persistente e involuntario movimiento del mar que da forma a las piedras. Partiendo del gesto mínimo pero constante y con los recursos más humildes -papel y bolígrafo- he buscado captar tal actividad repetitiva desde el acto de dibujar. Así, a lo largo de los meses han ido surgiendo preguntas sobre la trama, los intersticios, los límites, los puntos de encuentro, las esencias, los restos, la comparación entre escala paisajística y objetual, los niveles de rozamiento y su posible interacción, la proporción entre el azar y el control, etc. Una vez más sitúo el acento en el proceso frente al resultado, pues lejos de pretender mostrar un trabajo final, la serie se presenta como la huella de un aprendizaje desarrollado durante meses, un interrogarse, un probar y seguir probando. Estos dibujos piden proximidad a la eventual espectadora. Sólo desde la cercanía se establecerá la intimidad desde la que observar su fragilidad y por ende la propia, cada uno de los trazos, el camino lleno de imperfecciones que ha guiado la acción. Si te acercas y te dejas perder en los dibujos quizás viajes también.

En ese pasear atento por los dibujos llegaremos a una de las cuatro **esquinas** del claustro. La construcción arquitectónica revela una voluntad de distinción de tales espacios con la inclusión de altares -mayor profundidad y altura-. Aquí sí cabe que proyectes tu mirada a largo porque desde cada esquina podrás poner en relación visual varias imágenes de gran formato. Es precisamente en esos huecos donde aparecen unas manos femeninas en que igualmente leemos el paso del tiempo, especialmente en contraste con la piedra. No existe la mano neutra, siempre nos hablan. Te invito a que escuches su susurro.


Iratxe Hdez. Simal













































ESKERRAK - AGRADECIMIENTOS

Igor, Haitz eta Ur

Aurora Simal, Rafa Calderón, Enara Artetxe, Susana Jodra, Nerea Legarreta,
Iñaki Gomendio eta Raul Jiménez

EKINTZAILEAK - PERFORMERS • Lortu genuen! Esker Mila

Unai Santixo

Ainara Unanue

Maider Salegi

Martxel Etxaniz

Oihana Irusta

Iñigo Formáriz

Ander Elola


Amaia Ballesteros

Jon Eguren

Ibon Aranberri

Igor Formáriz

Iratxe Hdez. Simal



Debako Santa Maria elizako klaustroa
Claustro de la iglesia de Santa María de Deba

2019ko uztaila - abuztua
julio - agosto de 2019